


Zenbaki aljebraiko deritzo ekuazio aljebraiko baten ebazpen den zenbakiari.



Honelako moldeak ditugu euskaraz izenak emateko:

Halakoari X **esaten** zaio

Halakoei Y **esaten** zaie

Halakoari X **deritzo** / **deritza**

Halakoei Y **deritze**



'Deritzo' nahiz 'deritza' erabil daitezke, baina ez 'deritzaio'
(ikus Euskaltzaindia, *EGLU II*, 1987: 313)

Halakoari X **deitzen** zaio

Halakoei Y **deitzen** zaie



Halakoari X deritzo

Linfa-gongoilak handitzeari linfadenitis **deritzo**.

Berdin hasi eta bukatzen den hitzari ziklograma **deritzo**.

Iturrizabaleta **deritzo** Apodakan sortzen den errekarari.

Trabekulak **deritze** belakiaren zati solidoak osatzen dituzten hezur-egiturei.



Halakoari Y deitzen zaio

Symphoniae **deitzen zaie** grezieraz, gizakion ahotsak naturalki modula ditzakeen akordeei.

Zenbakien ezaugarriak zenbakietan bertan aurkitzeari **deitzen zaio** zenbakien teoria.

Aurretik atzera zein atzekoz aurrera halatsu irakurtzen diren hitz kateei **deitzen zaie** palindromo.

*Goizuetan bada gizon bat
deitzen zaio Trabuko
(...)*



Halakoari Z esaten zaio

Xenotrasplante **esaten zaio** espezie baten organoak edo ehunak beste espezie bati txertatzeari.

“Obus-xokaren trauma” edo “gerra-neurosia” ere **esaten zaio**. Obus-eztandek eragindako ikara zela-eta nerbio-krisiak eta bihotzekoak izaten zituzten soldaduek...
(Michael Morpurgo (2006). *Peaceful soldadua*. Itzul.: Mirentxu Larrañaga.)

Bronkitis asmatiforme **esaten zaio** prozesu horri, arnastean pazienteak egiten dituen hotsak asmatikoek egindakoen antzekoak direlako.



Erabil ditzagun honelakoak, aurrekoen ordeez:

“Heriotzaren errepidea” esaten zaion ibilbidean bi lagun hil ziren atzo.

Tximinoen ikusmen-kortex primarioan (V4 deritzon aldean) baziren zelula batzuk...

Lan hori “Delphi txostena” deitzen diote pediatrek.

